



## 2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

**Departamentua: Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa**

**Programa: 010 Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Zerbitzu Orokorrak**

### 2016 Aurrekonturako helburuak:

Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

### A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

| Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak                                            | Adierazlea       | Adier. Helburua | Adier. Betetzea | Balorazioa                                                                                                                                                                                                                                           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|------------------|-----------------|-----------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Kontratazioko pleguetan berdintasuneko klausulak txertatzea, hala dagokien kontratuetan | Kontratu kopurua | 34              | 29              | Izapidetzen diren kontratazio prozedura guztietan txertatzen dira baldintza orri administratiboetan eta kontratuaren objektuak ahalbidetzen duenean ezaugarri teknikoek orrietan berdintasun klausulak (berdintasun plana eta hizkuntza ez sexista). |

### B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

| Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak | Betetze maila | Balorazioa |
|----------------------------------------------|---------------|------------|
|                                              |               |            |



## 2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

**Departamentua: Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa**

**Programa: 020 Herritarren Partaidetza**

### 2016eko Aurrekonturako helburuak

- Gipuzkoarrek gai publikoetan eta lurraldeko proiektuetan parte hartu eta erabakietan eragiteko gaitasuna sustatu nahi dugu. Herritarrek parte-hartzea naturaltasunez bizitzea eta lurraldea kudeatzeko garaian, herritarren eta erakundeen arteko harremanetan elementu eta eskubide nagusia izatea.

1. Gipuzkoako herritarren artean partaidetzaren kultura zabaltzea harremanetarako eta parte hartzerako gune zein aukerak eskainiz, bai zuzenean baita udal eta eragileekin elkarlanean ere.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan herritarren partaidetzarako berariazko mekanismo eta prozesuak planifikatu eta kudeatzea.
3. Foru Aldundiko departamentuei aholkularitza eskaintzea beraien politikatan Herritarren Partaidetza kontuan hartu dezaten, eta gaiaren zeharkakotasuna bermatzea.
4. Gipuzkoako udalei bide laguntza eta aholkularitza eskaintzea Herritarren Partaidetzarako alorrean.

### A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

| Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak | Adierazlea | Adierazle helburuak | Adierazle Betetzea | Balorazioa |
|----------------------------------------------|------------|---------------------|--------------------|------------|
|                                              |            |                     |                    |            |

### B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

| Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak                                                                            | Betetze maila | Balorazioa                                                                                                                            |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Gizarte elkartasun eta integrazio maila handiagoak bermatzea, berariazko ekarpena eginez genero berdintasunaren arloan. | Ertaina       | Herritarren partaidetzarako Foru-Arau berriaren definizioan egindako ekarpenek, helburu honen lorpenean aurrera egitea eragiten dute. |



## 2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

**Departamentua: Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa**

**Programa: 200 Funtzio Publikoa.**

### 2016ko Aurrekontuaren helburuak

1. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista orokortzea, barne- nahiz kanpo-komunikazioan.
2. Berdintasun printzipioa kontratazio publikoan txertatzea orokortzea.
3. Langileak berdintasunaren gaian trebatzea.
4. GFAko langileek ordaindutako lana eta ordaindu gabeko lana bateratzeko dituzten estrategia eta baliabideei buruzko diagnosi bat prestatzea.
5. Proposatutako aldaketak nola ezartzen diren kontrolatzeko eta horren segimendua eta ebaluazioa egiteko mekanismoak zehaztea.

### A) Adierazle neurgarrien bidez proposatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa

| Proposatutako helburuekin zerikusia duten ekintzak                                                                                                                                                          | Adierazlea                                                                  | Helburua, adierazlea | Betearazpena, adierazlea | Balorazioa                                                                                                                                                                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------|----------------------|--------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1.1 Hizkuntzaren erabilera ez sexista bultzatzea, Langileen Kudeaketarako aplikazioaren dokumentu administratiboan txantilo guztiak, euskarazkoak nahiz gaztelaniazkoak, berrikusiz.                        | Berrikusitako dokumentu kopurua                                             | 100                  | 70                       | Positiboa. Duela urte batzuk (2013-14) gehien erabiltzen diren gaztelaniazko txantiloak berrikusi ziren. Alderdi negatiboa, euskarazko txantiloak berrikustea falta da.                                                      |
| 2.1 Kontratazio agirietan berdintasuneko klausulak sartzea, eta horien betearazpenaren jarraipena egitea.                                                                                                   | Kontratu kopurua                                                            | 30                   | 30                       | Positiboa. Kontratu guztietan berdintasuneko klausulak sartu dira.                                                                                                                                                           |
| 3.1 Berdintasuneko Foru Planaren prozesuren batean sartuta dauden eta berdintasunean prestakuntzarik jaso ez duten Funtzio Publikoko Zerbitzuko langileak trebatzea. Hasierako eta oinarrizko prestakuntza. | "Berdintasuna delako hori, zer da?" ikastarora joan diren pertsonen kopurua | 1                    | 0                        | 2016an ez da Funtzio Publikoko Zerbitzutik inor bertaratu ikastaro honetara. Oztopen artean garrantzitsuenak izan dira eragindako langileek erakutsitako mesfidantza eta aurreiritziak. Ikastaro hau ez da 2017an eskainiko. |
| 3.2 2016rako programatutako prestakuntza ikastaro honetan parte hartzea: "Nola integratu berdintasun printzipioa jardunbide administratiboetan".                                                            | Bertaratutako en kopurua                                                    | 1                    | 1                        | 2016an Funtzio Publikoko Zerbitzuko teknikari bat bakarrik bertaratu da ikastaro horretara.                                                                                                                                  |
| 3.3 2016an "Genero eraginaren aurreko ebaluazioa arautegian" teknikarientzat programatutako ikastaroan parte hartzea eta bertaratzia.                                                                       | Parte hartzaileen kopurua                                                   | 1                    | 0                        | "Genero eraginaren aurreko ebaluazioa arautegian" ikastaro bat programatu zen teknikarientzat, baina bertan behera geratu                                                                                                    |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------|
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | zen pertsona gutxi eman zutelako izena. |
| <b>B) Adierazle neurgarriak gabe proposatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa</b>                                                                                                                                                                                                                        |                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                         |
| <b>Proposatutako helburuekin zerikusia duten ekintzak</b>                                                                                                                                                                                                                                                   | <b>Betetze maila</b> | <b>Balorazioa</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                         |
| 4.1 GFAko langileen eskaeren azterketa, baldin eta lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeari buruzko eskaerak badira, edo gurasotasun baimenei buruzkoak, lan murrizketei buruzkoak, soldatarik gabeko baimenei buruzkoak, eszedentziei buruzkoak..., eta eskaera horien eragina generoaren arabera. | Handia               | Positiboa. Berriz ere GFAko langileek (2016ko uztailera bitartean) lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeari buruz, edo gurasotasun baimenei buruz, lan murrizketei buruz, soldatarik gabeko baimenei buruz, eszedentziei buruz egindako eskaerei nahiz eskaera horiek generoaren arabera izan duten eraginari dagozkien datuen eta horien bilakaeraren azterketa egin da. Nabarmentzekoa da datuek erakutsi duten atzerapena, krisi ekonomikoaren ondorio dena, emakumeen ezegonkortasuna areagotu egiten baitu.                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                         |
| 4.2 Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko eskuragarri dauden baliabideen gabeziak, eta eskatutako baimenak hartzerakoan dauden desberdintasunak detektatzea.                                                                                                                                      | Handia               | Positiboa. Alde batetik, egiaztatu da jarraitzen dela emakumeen eta gizonen arteko zereginen banaketaren betiko ereduarekin, eta, beste alde batetik, egiaztatzen da (2013. 2014, 2105 urteetan eta 2016 urtearen zati batean bezala) krisi ekonomikoaren ondorioz areagotu egin direla baimenak eta lizentziak hartzerakoan dauden desberdintasunak, eta horrek, azken batean, emakumeen egoera ekonomikoaren ezegonkortasuna eragiten du eta desberdintasunak betikotzen ditu.<br><br>Azken finean, gure Administrazioan aukera "teorikoak" guztiz paritarioak badira ere familia eta lana uztartzeko, nahiz botere posizioetara iristeko, hau da, buruzagitzak edo sustapen pertsonala lortzeko; errealitateak erakusten du oso gutxi aurreratu dela benetakoa eta eraginkorra den berdintasunean, eta asko dagoela egiteko. |                                         |